

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntzak hitzarmenak sinatu ditu Corella eta Mendaviako institutuetan elkarbizitza sustatzeko

*Bi herrietako erakunde sozialekin elkarlanean ikasleak kaleratzea saihestu nahi da “Tiempo Fuera” programari esker*

Ostirala, 2017.eko maiatzak 19

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak jarrera arazoak dituzten ikasleak eskolatik kaleratu ordez, euren garaupen sozialetan lagungarri izango diren bestelako ekintzetan aritzeko aukera izaten dezaten bi akordio sinatu ditu gaur.

Lehenengoa, Corellako alkate Gorka Garciarekin izan da, Alhama ikastetxeko gazteek, hala erabakitzen bada, Hogar de San Jose patronatuan aritu daitezten, eskolatik kaleratu ordez. Bigarrena, berriz, Mendabiako alkate M<sup>a</sup> Josefa Verano, hango Joaquin Romera ikastetxeko ikasleek helduentzako Dionisio Salcedo Sádaba egoitzan aritu daitezten.

“Tiempo Fuera” izeneko hitzarmen hauek bilatzen dutena da ikasleen hezkuntzan eragitea neurri eraikitzaileak erabilia eta euren bizigaitasunak hobetzea. Izan ere, gaizki portatzeagatik eskolatik kaleratzeak ez du berez ikaslearen portaera hobetzen. Hori dela eta, neurri hauekin bilatzen dena da bestelako inguruneetan aritzeko aukera eskaintzea, ikasleak berak laguntza eskaintzeko aukera izan dezaten eta herriko erakundeekin elkarlanean aritzea, ikasleek bestelako errealitate sozialak ezagutu ditzaten.

Hala bada, Mendabiaren kasuan, herriko adin nagusikoen egoitzan arituko direla jaso da hitzarmenean; Corella, berriz, Hogar de San Jose erresidentzian laguntzeko aukera izan dezaten jaso da akordioan.



Solana kontseilaria Corellako alkatea eta Institutuko ordekariekin .



Solana kontseilaria Mendaviako alkatea eta Institutuiko zuzendariarekin.